



BABESTU. Sorkuntza garaikidea babesteko programa

Sorkuntza eta hedapen artistikoa bultzatzeko proiektuen deialdia

2025KO DEIALDIAREN OINARRIAK

Deialdi honen helburua sorkuntza eta zabalkunde artistikoa bultzatzea da, 4 proiektu hautatuz, Azkuna Zentroaren programazio-ildoekin lotuta: arte bisualak, arte biziak, literatura, zinema, ikus-entzunezkoak eta bitartekaritza, zentroko programazio-arloak zeharkatzen dituen ardatza.

1. AURKEZPENA

Azkuna Zentroa Bilboko Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroa da, tokiko eta nazioarteko begiradarekin, eta publiko-komunitate desberdinekin hitz egiteko irekia. Kultura praktika gisa, prozesu gisa, esperientziatarako espazio gisa bizitzeko lekua da.

Bere helburua pertsonen eta kultura garaikidearen arteko loturak sortzea da, testuinguruan eragiteko eta gizarte sortzaileagoa, kritikoagoa eta anitzagoa eraikitzen laguntzeko.

2024-2029 Programa Proiektuaren esparruan, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao artistentzat eta sortzaileentzat kultura garaikidera sartzeko plataforma bat izan dadin lan egiten dugu, gizartearekin elkarriketan.

Gune dinamikoa, sorkuntza eta ikerketa sustatzeko baldintza egokiekin; toki publikoa, artistek probatu, partekatu eta ikusgai jar ditzaketen beraien prozesuak eta praktikak, publikoko komunitateekin. Horregatik hitz egin dugu Azkuna Zentroaz praktika, prozesu eta esperientziarako espazio gisa.

Gure ustez ekitaldia bezain garrantzitsua da sorkuntza-prozesua eta uzten duen ezagutzen aztarna, baita hori guztia Artxioboaren edo gure argitalpenen bidez erregistratzea ere.

2020an, Azkuna Zentroak Babestu programaren lehen deialdia egin zuen, sorkuntza garaikideari laguntzeko ezohiko programa gisa, Covid-19aren krisiak eragindako salbuespeneko egoerari erantzuteko. Hurrengo urteetan, beharrezkotzat jotzen dugu sorkuntza artistikoa bultzatzen jarraitzea, eratze-prozesu horiek indartzea eta pertsonen

beren proiektuak garatzen lagun egitea. Haien lana erabakigarria izango da gizarte gisa ditugun aldaketei aurre egiteko, eta, horretarako, plataformak, denbora, tokiak, baliabideak eta zaintzak behar dituzte sortzaileek, horrela baino ez baitituzte garatuko prozesu artistikoak. Zentzu horretan, Azkuna Zentroa artisten habitata da eta hala izaten jarraituko du. Gaur egun Udalaren estrategiarekin bat egin dugu sorkuntza artistikoa babesteko deialdi honen bidez.

BABESTU. Sorkuntza garaikidea babesteko programa Lantegia. Ideien laborategia proiektuaren barruan dago, hau da, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok proiektu artistikoak ekoizteko eta bistaratzeko duen eta parte-hartzea, sorkuntza, berrikuntza, jakintza, irisgarritasuna eta dibertsitatea sustatzen dituen gunean. Artearen eta komunitateen habitata da, lan-inguru irekia eta lankidetzazkoa sortzeko beharrari erantzuten diona; sorkuntza artistikoa ikerkuntzatik eta hezkuntzatik gertuago dagoen prozesu bezala ikusten da, eta ateak irekitzen dizkio ekoizpenari eta esperimentazioari.

2. XEDEA

Deialdi honen helburua arte, kultura eta sorkuntzako 4 proiektu hautatzea da, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao programari lotuta, gutxienez 3 astez eta gehienez 3 hilabetez, 2025ko urtariletik abendura bitartean garatu eta zentroan aurkezteko (data zehatzak Azkuna Zentroarekin hitzartu behar dira). Aukeratutako proiektuak zentroko lau programazio-ildoekin lotuta egongo dira: arte bisualak, arte biziak, zinema eta ikus-entzunezkoak eta literatura. Era berean, hezkuntza eta bitartekaritzaren inguruko proiektuak baloratuko dira, zentroaren programazioa zeharkatzen duten ildoak baitira.

3. DEIALDIAREN HELBURUAK

Lantegia. Ideien Laborategia da Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok proiektu artistikoak ekoizteko eta ikustarazteko duen espazioa, eta parte-hartzea, sorkuntza, berrikuntza, jakintza, irisgarritasuna eta dibertsitatea sustatzen ditu. Arteak eta kultura- eta sormen-industrien sektorea profesionalizatzeko zentroa



da. Lankidetza, sorkuntza eta berrikuntza sustatzeko gunea.

Lantegia. Ideia-laborategiak arte- eta komunitate-habitata izan nahi du; oso berritzailea, artistikoa eta nazioartekoa; gizartea kultura garaikidearekin lotzeko moduko truke-lekua; publikoen komunitateek hiriko kultura-ekoizpenean parte har dezaten sustatzeko hiri-laborategia.

BABESTU. Sorkuntza garaikidea babesteko programako proiektuen deialdiak ikuspegi malgua eta diziplinartekoa du, eta xedea hau da:

- Sortzaileei eta karrera ertaineko kolektiboek laguntzea proiektu berriekin edo garatzen ari ziren prozesuekin eta ikerketekin jarraitu ahal dezaten.
- Sorkuntza eta kultura garaikidearen ekoizpena eta zabalkundea sustatzea, eta, horretarako, esperientzien, ideien eta ikuspegien trukea sustatzea.
- Gertuko sormen-sarea babestea diziplina askotan eta zeharkako dimentsioan.
- Artistek erabiltzeko moduko tresna izan nahi du, eta baldintza materialak eta espazialak eskaini nahi dizkie sortzaileei, Azkuna Zentroaren programazio eta ekintza-ildoekin lotura duten sorkuntzako proiektuak gara ditzaten.
- Herriarrei hausnarketa artistiko garaikidera gerturatzea erraztea, eta eztabaidak sortzea, kultura eraldatzeko tresna gisa jarritz.

4. HAUTAGAIEN BETEBEHARRAK

Deialdi hau adinez nagusiak diren artistei, sortzaileei, komisarioei, antolakundeei eta/edo erakundeei zuzenduta dago, banaka edo taldeka, Euskal Herriko testuinguru artistiko eta kulturaletik badatoz.

Aurreko ekitaldian Azkuna Zentroaren beka jaso duten pertsonak urtebete itxaron beharko dute hurrengo deialdira aurkeztu ahal izateko.

Gainera, proiektuek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Aurkeztutako proiektuek praktika artistikoak garatzeko forma berriak aztertzea izan behar dute xede eta AZren programazio-ildoan kokatu behar dira.
- Azkuna Zentroko publiko komunitateetako batzuekin partekatu ahal izateko pentsatu beharko dira proiektuak.

- Aurkeztutako proiektuek lehentasuna eman beharko diete arte-munduko ikerketei eta hausnarketei, eta obra baten sorkuntzak berekin duen bilaketa-, proba- eta esperimentazio-lana aurkeztu beharko dute. Amaierako pieza azpimarratu ordez, garapena azpimarratu beharko da.

5. EPEAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Inskripzioa egiteko epea deialdi hau argitaratzen den egunetik, hau da, 2024ko uztailaren 8tik, 2024ko irailaren 8ra arte egongo da zabalik.

Izena emateko bidali deialdiak@azkunazentroa.eus helbidera email bat honako dokumentazio hau PDF fitxategi bakar batean erantsiz:

1. Harremanetarako datu pertsonalak: Izena, postahelbidea, NAN/IFK, telefono mugikorra, e-posta.
2. Hautagaiaren CVa eta biografia, haren garapen profesionala ikusteko. Gehienez 500 hitz.
3. Proiektuaren laburpena. Gehienez 300 hitz.
4. Proiektuaren dosierra, honako hauek jasoko dituen: Proiektuaren izenburua eta garapena (gehienez 1.000 hitz), behar teknikoak, burutzeko egutegia, aurrekontu banakatua.
5. Motibazio-gutuna.
6. Aurkezpen-bideo labur baterako esteka (5 minutu gehienez).

Artxiboak egitura hau edukiko du: Izenabizenak_babestuAZ. Adibidez, Anegarcia_babestuAZ. Atal honetan adierazitako agiri guztiak ez dituzten eskariei, falta zaizkien agiriak aurkezteko eskatuko zaie eta hamar eguneko epea izango dute horretarako. Falta diren agiriak aurkezten ez badira, eskaririk ez aurkeztea erabaki duela esan nahiko du.

6 .PROIEKTUAK BALORATZEKO ETA HAUTATZEKO BATZORDEA ETA IRIZPIDEAK

Balorzio Batzordea aurkeztutako proiektuak balioesteaz arduratuko da. Az-ko lan taldeko lagunek eta artearen arloan ondo ezagututako ibilbidea duten kanpoko pertsonak eratuko dute Balorzio Batzordea.

Proiektuak balioesteko irizpide hauek hartuko dira aintzat:

- Eduki artistiko garrantzitsua.
- Proiektuaren kalitatea eta bideragarritasuna.



- Proiektua Azkuna Zentroaren baliabideetara eta espazioetara zenbateraino egokitzen den.
- Proiektuak Azkuna Zentroko programazio-ildoekin eta 2024-2029 Proiektu Programarekin duen testuinguru-harremana.
- Baloratuko da proiektuak xede dituen publikoak eta komunitateak kontuan hartzea. Adb.: Publiko orokorra, arteko publiko profesionala, irakurleak eta literatura-arloko publikoa, ikasleak, familiak, komunitate migratzailea, etab.
- Barne lanaz eta azterlan pertsonalaz gain, kontuan hartuko da proposamenak zati publiko bat jasotzea prozesuaren erakusgarri gisa (hitzaldiak, tailerrak...), bai eta beste eragile batzuekiko lankidetzazko-prozesuak ere.
- Ondo ebaluatuko da lantokia, espazio komunak, azpiegiturak eta zentroko zerbitzuak egonaldian zehar etengabe eta egutegiaren arabera erabiltzeko beharra.

Batzordeak beharrezkotzat jotzen badu, elkarriketa bat egiteko eskatu ahal izango die hautagaiei.

Hautatutako proiektuari buruzko erabakia Balorazio Batzordearen eskumen eksklusiboa da, eta ezin zaio errekurtsorik aurkeztu. Adjudikaziodunak uko eginez gero, Batzordeak eskumena izango du egonaldia bigarren hautagairi edo kolektiboari esleitzeko edo deialdia jabegabe uzteko.

Batzordeak deialdia bete gabe utzi ahal izango du, baldin eta uste badu aurkeztutako proiektuetako batek ere ez dituela betetzen egonaldiaz gozatzeko behar diren ezaugarriak edo merezimenduak.

Erabakia 2024ko irailaren 21tik aurrera jakinaraziko da. Web orrian argitaratuko da: www.azkunazentroa.eus. Horrez gain, onuradunari zuzenean jakinaraziko zaio, emandako helbidean. Hautatutako pertsonak onartzen duela berretsi beharko du, erabakia jakinarazten zaionetik astebeteko epean.

Finkatutako epean adjudikazioa onartuz gero, adjudikaziodunak 10 egun balioduneko epea izango du, adjudikazioaren berri eman zaionetik hasita, dokumentu hauek aurkezteko:

- NANaren kopia (edo baliokidea).
- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2001 Legegintzako Errege Dekretuak 60. artikuluan aipatutako inguruabarretan sartuta ez dagoela egiaztatzen duen adierazpena.

- Egonaldia egiteko eskatutako egunetan libre egongo dela egiaztatzen duen sinatutako adierazpena.

7. AZKUNA ZENTROAK ESKAINTZEN DU

Proiektu bakoitzari gehienez ere 6.000 euro gordin (BEZ gabe) emango zaizkio. Partida hauei gehituko zaizkie Azkuna Zentroaren eta batzordearen azpiegiturak, aholkularitza eta bitartekaritza.

Kopuru hori honela sartuko da: % 50 kontratua sinatzean eta gainerako % 50 kontratua amaitu eta memoria entregatzean; aurrez faktura aurkeztu beharko da beti Centro Azkuna de Sociedad y Cultura Contemporánea S.A.ren izenean.

Deialdi honetan hautatutako proiektuaren pertsona edo erakunde titullarrak hitza ematen du:

- Hautaketa-batzordearen ebazpena onartuko duela.
- Proiektua deialdira aurkeztu eta onartutako ezaugarrien eta premisen arabera gauzatzea.
- Idatziz jakinaraziko duela, aurkeztutako proiektuan egindako aldaketa oro.
- Sorkuntza babesteko programaren inguruan AZk garatutako jardueretan parte hartuko duela.
- Deialdi honetan jakinarazitako epe eta baldintzetan garatuko duela proiektua.
- Proiektua behar bezala jakinarazteko beharrezko informazioa eta agiriak aurkeztuko dituela.
- Programa amaitu ondoren lanaren memoria aurkeztuko duela bi hilabeteko epean.
- Azkuna Zentroaren logoa jarriko duela obraren aurkezpen- eta ustiapen-ekitaldi edo -erabilera orotan.
- Aurkeztutako proiektuak erakunde publiko edo instituzioren batek emandako laguntza, beka edo dirulaguntzaren bat eskatu edo jaso badu, horren berri eman beharko zaio AZri, zein den/diren adierazita.

8. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Parte-hartzaileak aurkeztutako proiektuaren originaltasunaren eta egiletzaren erantzule izango dira, eta proiektu horien gaineko legezko jabetza intelektualaren eskubideak dituztela bermatuko dute. Ildo horretan, Az-ren erabilera baketsua bermatuko dute, eta berariaz salbuetsiko dute Az, berme hori ez betetzeak zuzenean edo zeharka eragin litzakeen kalte-ordainen



erantzukizun guztietatik. Merkataritzako jarduerak egiteko erabilera berariaz bazter utzirik, Az-k hautatutako proiektuei lotutako informazioa (testuala, ikus-entzunezkoa eta grafikoa) erabili ahal izango du bere jardueren berri emateko. Osorik edo partzialki eta bakarrik edo bestelako edukiekin batera erabili ahal izango du.

Hortaz, hautatutako pertsonak Az-ri lagako dizkio eskubide horiek, legeak baimendutako gehieneko denboraz, mundu osoko esparru geografikoan, Az-ko jardueren bilduma-argitalpenak, liburuxkak edo katalogoak paperean eta euskarri digitalean argitaratzeko (web orria eta Az-k kudeatutako sare sozialetako profilak barnean hartuta).

Halaber, hautatutako pertsonak onartzen du idatzizko, ikus-entzunezko, argazki eta abarretako material guztiak. Zentroan lanean ari diren bitartean sortu badira, Artxibo Az osatzen badute, betiere hezkuntza eta zabalkunde helburuekin (inoiz ez irabazi asmorik gabe).

Hautatutako pertsonak berariazko baimena emango dio Az-ri bere izena erabil dezan egoki iruditzen zaion eran eta deialdi honen helburuen barruan.

9. PARTE-HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK

Parte-hartzaileek baimena emango diote Az-ri beren izena, kargua, irudia eta, noiz edo noiz, ahotsa -Az-ko espazioetan egiten diren argazki edo bideoetan jasotakoak- erabiltzeko, geroko informazio-zabalkunderako edo sustapenerako. Hori guztia, beren ohorerako eskubidearen aurka egon daitezkeen erabilerak eta aplikazioak kenduta, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak ezarritako moduan. Aurreko eremutik kanpoko bestelako erabilerak berariaz utziko dira baimen honetatik kanpo.

Bilbon, 2024ko uztailaren 8an

Sorkuntzari laguntzeko beste deialdi batzuk hemen kontsulta ditzakezu: azkunazentroa.eus

10. JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaileek onartuko dute deialdi honetan emandako datu pertsonalak Azkuna Zentroaren titulartasuneko fitxategian sar daitezen -ondorio horretarako, Arriquirar plaza 4, 48010, Bilbo helbidean egoitza izanda-, deialdi hau eta haren administrazioa, fakturazioa eta/edo dokumentazioa kudeatu ahal izateko. Parte-hartzaileak bere lankideen datu pertsonalak ematen baditu, haien baimena jaso beharko du datu horiek Azkuna Zentroari jakinarazteko, helburu berberarekin.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurka egiteko, mugatzeko eta eramangarriak izateko eskubideez baliatu ahal izateko, posta elektronikoko mezua bidali beharko da Info@azkunazentroa.eus helbidera, mezuaren gaian sarbide-eskubideak jarrita, eta, eranskin gisa, eskutitz bat -datuen titularrak sinatuta eta jakinarazpenak egiteko helbidea adierazita-, eta NANaren edo antzeko egiaztagiri baten kopia bat gehituta.

11. JURISDIKZIOA

Bi alderdien artean sor litezkeen gatazkak konpontzeko adiskidantzazko ebazpenik lortzen ez bada, Bilboko epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira, beren eskumenari berariaz uko eginda.

12. OINARRIEN ONARPENA

Deialdira aurkezte hutsagatik, parte-hartzaileek onetsi egingo dituzte oinarri hauek. Deialdi berezi honetatik kanpo daude artista AZkideak eta Azkuna Zentroko kolektibo egoiliarak.